


# ETXEALDITIK EUSKARALDIRA

EGUTEGIA • SAREEN ERABILERA





## EGUTEGIA

Hemen duzue ekimenak iraungo duen bi aste eta erdirako egutegia.

**1. astea:** prestaketa lanak eta beroketa.

**2. eta 3. asteak:** hizkuntza ohiturak aldatzeko proposamenen pilulak.

Astlehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
13	14	15	16 Batzordeentzako galdera/erantzun saioak**	17 BEROKETA	18 BEROKETA	19 BEROKETA
20 AURKEZPENA + puntuak leihoetan	21 ETXEKO HIZKUNTZA OHITURAK AZTERTU	22	23	24 JOLASTU EUSKARAZ	25 ONLINE POTEOA	26 BAZKARI ETXEKOIA (denok batera)
27 ESKER MEZUAK	28 EROSKETAK	29 ZINEMA ETXEAN	30 BIZIPENAK PARTEKATZEKO DEIA	1	2 BIZIPENAK	3 (HERRITARREN BIZIPENAK SAREETAN)

**\*\* Galdera/erantzunetarako saioak**

- gela honetan egingo ditugu: <https://meet.jit.si/EtxealditikEuskaraldiraBatzordeak>
- bi aukera: 11:00etan eta 17:00etan. Zein saiotara etorriko zaren esateko, bete galdetegi hau, mesedez: <https://labur.eus/Odomi>



## BEROKETA

---

Ekimena hasi aurreko egunetan, Euskaralditik zerbait antolatzena goazela adierazteko mezuak zabalduko ditugu.

Egun hauetan prentsa-oharra ere zabalduko da eta harremanetan jarriko gara hainbat komunikabide eta euskalgintzako eragilerekin, eurek ere ekimenaren zabalduan parte hartu dezaten.

## BIDEO PILULAK

---

Guztira 10 bideo zabalduko ditugu, 10 egun ezberdinetan.

1. **Aurkezpen bideoa.** Ekimenean zehar egingo duguna azalduko dugu. Leiho eta balkoietan puntuak jartzeko esango diegu parte-hartzaileei, kanpotik ere ikusi dezaten ekimenean parte hartzen ari garela. Gainera, etxean bertan ere oroigarri aproposa izango da praktika berriei eusteko.
2. **Etxeko hizkuntza ohiturak aztertze ariketa.** Etxekoekin eta etxetik ditugun harremanetan zein hizkuntzetan aritzen garen pentsatu, zer aldatu nahi dugun hausnartu eta datozen egunetarako prestatzeko ariketa izango da.

3-8. piluletan hizkuntza ohituren aldaketan lagundu dezaketen hainbat ideia-proposamen zabalduko ditugu.

3. **Jolastu euskaraz.** Etxeko mahai jolasak, kartak eta tribialak atera eta euskaraz jolastu dezagun!
4. **Online poteoa.** Larunbata, koadrilarekin pote bat hartzeko egun aproposa.
5. **Bazkari etxekoia (denok batera).** Igandetako bazkariak izaten dira asteko jatordurik garrantzitsuenak. Euskal Herri guztiko etxeetan euskaraz bazkaltzeko proposamena egingo dugu.
6. **Esker mezuak.** Asko dira egun hauetan bizi dugun egoera hau ahalik eta erosoena izateko eta gu zaintzeko lanean ari direnak. Sareak esker mezuz beteko ditugu.
7. **Erosketak.** Etxetik ateratzeko arrazoietako bat erosketak egitera joatea da. Irteera hauek ere hizkuntza ohiturak aldatzeko aprobetxatuko ditugu.
8. **Zinema etxean.** Antzoki askotan asteazkena izaten da ikusleen eguna. Oraingoan, zinema etxera ekarriko dugu.

9-10. ekimenean zehar izandako bizipenak jaso eta amaiera egunerako zerbait sortzeko tartea izango dugu.

9. **Bizipenak partekatzeko deia.** Astebete pasa honetan izandako bizipenak partekatzeko deia egingo diegu herritarrei. Bizipenak gogora ekarri eta zerbait sortzeko eskatuko diegu (argazki bat, bertso bat, marrazki bat...). Bi eguneko tartea izango dute horretarako.
10. **Bizipenak – adibideak.** Koordinaziotik bizipenak jasotzeko pare bat proposamen egingo ditugu, adibide moduan.



**Amaiera.** Azkeneko egunean, maiatzaren 3an, ez dugu bideorik zabalduko. Herritarrei emango diegu erreleboa eta eurek sortutako argitalpenekin beteko dugu sarea. Sortu duten horri (marrazkia, bertsoa, argazkia...) argazkia atera eta sareetan jartzeko eskatuko diegu.

## EKIMENA ZABALTZEA

Hiru bide erabiliko ditugu herritarrei ekimenaren berri eman eta parte hartu dezaten esateko:

1. **Sare sozialak.** Hau izango da bide nagusia. Euskaraldiaren kontu orokorretatik zabalduko dira egunaren hasieran eta herri-batzordeen kontuetatik errebotatuko ditugu. Erabiliko ditugun sareak:
  - a. Facebook
  - b. Twitter
  - c. Instagram
  - d. Telegram kanalak. "Ahobizi" eta "Belarriprest" kanalak daude sortuta.
  - e. Whatsapp-ean ditugun herri-batzordeentzako difusio taldeak.
2. **Komunikabideak.** Prentsa-oharra zabalduko dugu komunikabide nagusietara.
3. **Posta elektronikoa.** Lehenengo edizioan ahobizi eta belarriprest izan ziren herritarrei ekimenaren berri emateko emaila bidaliko diegu.

## SAREETARAKO IRIZPIDE OROKORRAK

- Euskaraldiaren sare orokorretatik ezer argitaratu aurretik ez zabaldu ezer, mesedez. Garrantzitsua da denok batera abiatzea.
- Sare orokorretatik bideoak zabalduko dira. **Herriko sareetatik zabaltzerako orduan, sartu iezaiozue zuen testu propioa**, sareen osasunerako garrantzitsua da hori. Herritarrei ekimenera batzeko gonbita egiteko aprobetxatu dezakezue: "*Arralden ere bat egingo dugu Etxealditik Euskaraldira ekimenarekin!*" eta antzekoak. Herrian bestelako ekimenen bat martxan baduzue, horrekin ere egin dezakezue lotura. Zuenera ekarri!
- Mezuak zabaltzen dituzuenean, BETI egin aipamena ekimen orokorrari **#etxealditikeuskaraldira** erabilita eta **@euskaraldia** aipatuta. Horrela, jarraipena egin nahi duenak loturak egingo ditu eta sare orokorretatik ere herriko mezuak zabaltzea errazagoa izango da.
- Nahi izanez gero, herria eta herriko sareen kontuak ere aipatu ditzakezue **#arralde** edo **@euskaraldia** arralde bezalakoeekin.